

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Lehendik dauden bizitegi izaerako eraikinetan igogailuak jartzeko baldintzak arautzen dituen udal ordenantza aldatzea

Denon ezaguerarako jakinarazten da jarraian azaltzen dela udal honetako Udalbatzarrak 2021eko ekainaren 28an egindako osoko bilkuran hartu duen erabakiko xedapenenen atala:

LEHENENGOA. Ezestea Eginaren Eginez Arabako Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Elkarateak aurkeztutako alegazioak.

BIGARRENA. Behin betiko onestea bizitegi-izaerako eraikinetan igogailuak jartzeko baldintzak arautzen dituen udal-ordenantzako 6., 10. eta 12. artikuluen aldaketak. Hortaz, honela geratuko dira, hitzez hitz:

“6. artikulua. Baldintza orokorrak

Gaur egun igogailurik ez duten eraikinetan proiektatzen diren igogailuek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Irigarritasunari buruz indarrean dagoen araudi teknikoa bete beharko dute instalatzen diren igogailuek, horien elementu guztiek (kabina, ateak, dei-mekanismoak eta hainbat elementu mekaniko) eta igogailura sartzeko plataforma nahiz ibilbideek. Zehazki, igogailuak eta bertara sartzeko plataformek eta ibilbideek 68/2000 Dekretuaren III. eranskineko irigarritasun-irizpideak eta EKT OD IES9 dokumentuan igogailu irigarriari dagokienez jasotako parametroak beteko dituzte.

b) Salbuespenez bakarrik, eta 68/2000 Dekretuaren V. eranskinaren 3. artikuluan jasotako betekizunak betetzen direnean, artikulua horretako erabilgarritasun irizpideak betetzen dituzten instalazioak onartuko dira.

c) Salbuespen gisa, eta 68/2000 Dekretuaren V. eranskinaren 3.2 artikuluan nahiz EKT OD IES dokumentuan xedatzen diren neurriak dauzkan igogailu erabilgarrikeria ezin bada instalatu, inguruabar hori agiri bidez justifikatu beharko da, eta espedientearen irigarritasunerako Euskal Kontseiluari helarazi beharko zaio.

Azken kasu horretan, nahitaezkoa izango da lizentzia eskatu aurretik kontsulta egitea Hiri Garapen Zerbitzuari, Zerbitzuko teknikariek horri buruzko txosten bat egin dezaten, gehienez ere, 2 hilabeteko epean.

Horretarako, proposatutako instalazioaren bideragarritasunari buruzko azterlan bat aurkeztuko da, baita ingurune eraiki irigarri bat diseinatzeko gutxienezko neurriak lor ditzaketen ordeko proposamenei buruzko azterlanak ere, hauek barne hartuta:

1. Azalpen-memoria.
2. Dokumentazio grafiko nahikoa; eraikinetan solairu osoaren egungo egoeraren planoak eta eraberritu osteko egoeraren planoak.
3. Jarduketaren gutxi gorabeherako aurrekontua.
4. Hala badagokio, irigarritasun handiagoa dakarten soluzioak bideraezinak direla justifikatzea.

denetan; izan ere, bertan onetsi egin dira, aipatutako legea betetzeko xedeaz, hiriguneetarako, toki publikoetarako, eraikinetarako eta informazio- eta komunikazio-sistemarako irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak.

Ordenantza hau ezin da aplikatu bera indarrean jartzeaz geroztiko oin berriko eraikinetan.

2. Artikulua. Hirigintza-parametroak betetzea

Ordenantza honen ondorioetarako, igogailua instalaziotzat joko da. Ez da eraikintzat hartuko. Beraz, ez du aprobetxamendua kontsumituko, eta berori agortu duten eraikinetan instala daiteke.

Halaber, onartu egingo da, aurrerago ezarriko den zuhurtasun osoaz, instalazio horiek ez betetzea arlo bakoitzerako orobat ezarri diren mugakide eta bide arteko tarteei buruzko parametroak.

II. TITULUA. EGOERAK

3. Artikulua. Igogailuen kokalekua

Kokapenari begira ondorengo kasu hauek izan daitezke:

1. Igogailua eraikinaren barruan.
2. Igogailua barruko patio itxian.
3. Igogailua fatxadara irekitako patioan edo etxadikoan.
4. Igogailua eraikuntzatik libre dagoen espazioan bide eta mugakide arteko tartetatik kanpo.
5. Igogailua espazio propioan, baina nahitaezko tarteen barruan.
6. Igogailua espazio publikoan.

4. Artikulua. Kokapenerako hobespenak

Aurreko artikuluan geroko igogailuen kokalekuak aurkeztu dira, gura handienetik txikienera ordenatuta.

Lizentzia-eskaeran arrazoitu eta aukeratuko da kokalekurik onena zerrendatutakoen artean.

Eraikinaren barruko esparru komunetan instalatzea dagoen guztietan, konponbide hori hartuko da. Horretarako, lehendik dauden eraikinetako obrei aplikatu dakizkiekeen Eraikuntzaren Kode Teknikoaren (EKT) irizpide orokorrekin bat (Suteetako Segurtasuneko Oinarriko Dokumentua_OD-SS, Erabilera eta Irisgarritasunerako Segurtasuneko Oinarriko Dokumentua_OD-EIS) eta Sustapen Ministerioaren interpretazioa barne, igogailuen instalazioak erabilera orokorreko eskaileretan eragiten dituen eraberritze-lanetan erabilera mugatuko eskaileretarako ezarritako tolerantzia onargarriko mugak erabil daitezke (EKT, OD-EIS 1.4.1), eskaileraren zabalera erabilgarria murrizteari, eskailera-buruetan eskailera-maila diagonalak (45°) jartzeko aukerari, eta maila-gainen zein kontramailen muga dimentsionalak gainditzeari dagokionez. Igogailuen instalazioak erabilera orokorreko eskaileretan eragiten dituen eraberritze-lanetarako, ezin izango dira inoiz gainditu OD-EISen erabilera mugatuko eskaileretarako ezarritako parametroak.

Bigarren aukera da partzelako barruko patioetan kokatzea. Horretarako, azalera edo bista zuzenak murriztea onartuko da. Parametro horiek ehuneko 25etik gora murriztuz gero, konponbide gardenak hartu beharko dira.

Hirugarren aukera da fatxadara irekitako patioetan edo etxadikoetan. Tximiniaren gardentasun-maila kaltetutako auzokide mugakideen bista zuzen eta ez-osokoen ondoriozkoa izango da.

Laugarren egoera da partzela propiokoa, nahitaezko tarteen eraginetik kanpokoa. Kasu horretan, fatxadaren material bereko tximinia opakua onar daiteke.

Bosgarren aukera da igogailua mugakide eta bide arteko tarteen eraginpeko espazio propioan instalatzea. Kasu horretarako gardentasuna nahitaezkoa da.

Seigarren aukera da igogailua espazio publikoan instalatzea, eta aukera hori interes publiko nagusiak baldintzatuko du, kontraesan-espeditentean aztertzeke, eragotzi barik espazio publikoaren erabilera pribatiboaren gaikuntza izapidetu beharrekoa.

Esku-hartzeak lehendik dagoen eskailera ordezkatzeko eta eraikinaren kanpoko zein barruko fatxadatik kanpo jartzea dakarrenean, igogailua etxebizitzetan sartzeko oinplanoko eskaile-ra-buruan kokatzeko xedeaz, haren kokapena 3. artikuluan jasotako egoeraren batekin asimilatuko da.

5. Artikulua. Konposizio- eta funtzio-irizpideak

Hartutako konponbideak forman fatxadarekin bat egin beharko du.

Bat egite hori tximiniaren forma eta dimentsioei, tximiniaren materialei eta bide publikotik eraikinera iristeko arazoak ebazteari dagokio.

Funtzio- eta konposizio-irizpideen konbinazioa behin betikoa izango da proposamenaren balorazioan.

Udalak baztertu ahal izango ditu instalazioa jasoko duen eraikina kaskartzen duten diseinuak.

III. TITULUA. INSTALAZIO BERRIAK LEHENDIK DAUDEN ERAIKINETAN

6. Artikulua. Baldintza orokorrak

Gaur egun igogailurik ez duten eraikinetan proiektatzen diren igogailuek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Elementu guztietan (kabina, atea, dei-mekanismoak eta hainbat elementu mekaniko) instalatzen den igogailuak eta igogailura sartzeko plataformek eta ibilbideek indarrean dagoen irisgarritasunari buruzko araudi teknikoak bete beharko dute. Zehazki, igogailuak eta bertara sartzeko plataformek eta ibilbideek 68/2000 Dekretuaren III. eranskineko irisgarritasun-irizpideak eta EKT DB SAU9ko igogailu irisgarriaren parametroak beteko dituzte.

b) Salbuespenez bakarrik, 68/2000 Dekretuaren V. eranskineko 3. artikuluko betekizunak betetzen direnean, artikuluko horretako erabilgarritasun-irizpideak betetzen dituzten instalazioak onartuko dira.

c) Salbuespen gisa, 68/2000 Dekretuaren V. eranskinaren 3.2 artikulua eta EKT DB SUAK ezartzen dituzten neurriak dituen igogailu erabilgarriak ere ezin bada instalatu, inguruabar hori agiri bidez justifikatu beharko da, eta espedientea Irisgarritasunerako Euskal Kontseiluari helarazi.

Azken kasu horretan, nahitaezkoa izango da, lizentzia eskatu aurretik, Hiri Garapeneko Zerbitzuari kontsulta egitea, eta zerbitzu horretako teknikariek txosten bat egingo dute horri buruz 2 hilabeteko epean.

Horretarako, proposatutako instalazioaren bideragarritasunari buruzko azterlan bat aurkeztuko da, bai eta proposamen alternatiboak aurkeztu beharko dira ingurune eraiki irisgarri bat gutxienezko neurriak lortzeko honako dokumentuak aurkeztuz:

1. Azalpen-memoria.
2. Dokumentazio grafiko nahikoa, eraikinaren solairu osoaren egungo egoeraren planoak, berritutako egoeraren planoak.
3. Jarduketaren gutxi gorabeherako aurrekontua.

4. Hala badagokio, irisgarritasun handiagoa dakarten soluzioak bideraezinak direla justifikatzea.

5. Okupatu edo desjabetu daitezkeen lokalak.

6. Jabeen erkidegoak eska ditzakeen laguntzen zenbateko zenbatetsia.

7. Artikulua. Gorabehera zibilak: jurisdikzio arrunterako utziak

Ordenantza honetan aurreikusitakoari jarraiki emandako baimenak emandakotzat hartuko dira, jabetza eskubidea salbu eta hirugarrenarena kaltetu barik.

8. Artikulua. Gardentasuna

Instalazio berriak patioen dimentsioak ukitzen dituen edo mugakideen bistak murrizten dituen kasuetarako, konponbideak ahalik eta gardenenak izan behar dira.

Horretarako, honako neurri hauek hartuko dira:

Kontuan hartzeko lehen aukera da kanpoko igogailua aterpeko tximiniarik gabe.

Horren ezean, aterpedun igogailua onartuko da, tximinia gardena bada.

Kasu horretan, kabinaren egitura- eta euste-osagaiak, gidariak, etab. eguneko fatxadaren planoan jarriko dira. Kabina hegal-plataformakoa izango da.

Igogailuaren tximiniak gardenak izango dira ahalik eta gehiena. Beiraz eta zurgin-lanik gabe egiten saiatuko da. Hori ezinezkoa bada, zurgin-lan lodiak saihestuko dira, eta aukeran alumina beti PVC baino lehenago.

Osagai gardenak beira hutsezkoak baino ez dira izango, tenplatuaz edo butiral-xafraz. Ez da metakrilatorik onartuko, ezta petroliotik eratorritako osagai gardenik ere.

Igogailuaren tximiniak bistak eta patioen dimentsioak murrizten ez dituen kasuetarako, itxitura fatxadako material beraz egin ahal izango da.

IV. TITULUA. LEHENDIK DAUDEN INSTALAZIOAK ERABERRITzea

9. Artikulua. Igogailuen eraberritze-egoera Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko 20/1997 Legea eta 68/2000 Dekretura egokitzeko

Igogailurik eraberritzen bada, abenduaren 4ko EAeko Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko 20/1997 Legea eta apirilaren 11ko 68/200 Dekretua betetzeko xedeaz, non onesten diren arau teknikoak hiriguneetara, toki publikoetara, eraikinetara eta informazio- eta komunikazio-sistemetarako irisgarritasun-baldintzei buruz, edozein kasutan ere bete beharko da ordenantza honetako 6. artikuluan erabakita datorrena, aldaketak igogailuaren lekualdatzea dakarren kasuetan zein hori gertatuko ez den kasuetan.

Eraberritze-lanak igogailua tokiz aldatzea ekarriko balu, aurreko artikuluetan zehaztutakoaren arabera egingo da.

Baimena emango da patioaren dimentsioak murrizteko, tximinia handitu eta, ondorioz, kabina handitu nahi bada. Horretarako, lehendik dauden eraikinetako obrei aplikatu dakizkiekeen Eraikuntzaren Kode Teknikoaren (EKT) irizpide orokorrekin bat (Suteetako Segurtasuneko Oinarriko Dokumentua_OD-SS, Erabilera eta Irisgarritasunerako Segurtasuneko Oinarriko Dokumentua_OD-EIS) eta Sustapen Ministerioaren interpretazioa barne, igogailuen instalazioak erabilera orokorreko eskaileretan eragiten dituen eraberritze-lanetan erabilera mugatuko eskaileretarako ezarritako tolerantzia onargarriko mugak erabil daitezke (EKT, OD-EIS 1.4.1), eskaileraren zabalera erabilgarria murrizteari, eskailera-buruetan eskailera-maila diagonalak (45°) jartzeko aukerari, eta maila-gainen zein kontramailen muga dimentsionalak gainditzei dagokionez. Igogailuen instalazioak erabilera orokorreko eskaileretan eragiten dituen eraberritze-lanetarako, ezin izango dira inoiz gainditu OD-EISen erabilera mugatuko eskaileretarako ezarritako parametroak.

V. TITULUA. IZAPIDEAK

10. Artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Lizentzia-eskaerak teknikari eskudunak idatzitako eta elkargo ofizial egokiak ikus-onetsitako proiektuarekin batera aurkeztu beharko dira, non jasoko diren proiektuetako ohiko zehaztapenez gain ondorengo hauek:

Kokapenerako aukerak, izan litezkeen kokalekuak hoberenetik okerrenera arrazoituta, eta hartutakoa justifikatuta.

Mugakideen bistetako eraginen azterketa, ukitutako eraikinen argazkiak, oinplanoa eta altxatuaren planoak, leihoak non dauden adierazita.

Igogailuaren tximiniaren osagarrietarako irizpideak, aldeztu aurretik zegoen fatxadari begira.

Espazio publikoari eragiten dioten konponbideak aurkeztu beharko dira ukitutako espazio publiko horretarako urbanizazio lanak egiteko eranskin batekin batera. Ukitutakoa oinezkoen ibilbideren bat bada, bermatuta geratu beharko da obra-lana amaitu ostean ezen oinezkoen ibilbide irisgarri eta eragozpenetatik libre geratu dela, zegoenarekiko zabalera berdinekoa, edo, gutxienez 2,00 m-koa, lehendik zegoen ibilbideren zabalaren dimentsioak hori gainditzen duenean.

Irizpide funtzionalak, proiektuak eraikinaren irisgarritasun-egoerari ekarriko dizkion hobekuntzak justifikatuta, eta hala badagokio, salbuespenezko konponbidearen justifikazioa, urbanizazioak eta eraikinak eraberritzeko, zabaltzeko edota aldatzeko lanetako irisgarritasun-baldintzei buruzko 68/2000 Dekretuaren V. eranskinen 3. artikuluan araututako praktikotasun-irizpideak ezartzeko.

Zaraten eta dardarei buruzko Udal Ordenantza betetzeari buruzko justifikazioa.

68/2000 Dekretuaren V. eranskinaren 3.2 artikulua eta EKT DB SUAk ezartzen dituzten neurriak dituen igogailu erabilgarririk instalatu ezin bada, inguruabar hori agiri bidez justifikatu beharko da, eta espedientea Irisgarritasunerako Euskal Kontseiluari helarazi.

Azken kasu horretan, nahitaezkoa izango da, lizentzia eskatu aurretik, Hiri Garapeneko Zerbitzuari kontsulta egitea, eta zerbitzu horretako teknikariek txosten bat emango diote kontsultari 2 hilabeteko epean.

Horretarako, proposatutako instalazioaren bideragarritasuneko azterlan bat aurkeztuko da, bai eta ingurune eraiki irisgarri bat diseinatzeko ezarritako gutxieneko neurriak lortuko dituzten proposamen alternatiboetarako buruzkoa ere, honako hauek barne:

1. Azalpen-memoria.
2. Dokumentazio grafiko nahikoa, eraikinaren solairu osoaren egungo egoeraren planoak, berritutako egoeraren planoak.
3. Jarduketaren gutxi gorabeherako aurrekontua.
4. Hala badagokio, irisgarritasun handiagoa dakarten soluzioak bideraezinak direla justifikatzea.
5. Okupatu edo desjabetu daitezkeen lokalak.
6. Jabekideen erkidegoak jaso ditzakeen laguntzen zenbateko zenbatetsia.

11. Artikulua. Txosten teknikoak

Eskaera ikusita, udal txosten teknikoa egingo da, hirigintzako arauetara egokitzeari buruz, ordenantza hau barne.

12. Artikulua. Hiri eta Landa Garapen Arloaren Informazio Batzordeari eta Ekonomia eta Zerga Kudeaketako Zerbitzuari jakinaraztea

Igogailua jartzeak espazio publikoa okupatzea badakar, proiektua, jardun eta egin izan denarekin batera, Hiri eta Landa Garapeneko Arloko Informazio Batzordeari jakinaraziko zaio. Halaber, burututako jarduketan berri emango zaio Ekonomia eta Zerga Kudeaketa Zerbitzuari, dagokion espedientearen izapidetu dezan.”

13. Artikulua. Espedientearen gaineko ebatzia hartzea, ebazpena

Organo eskudunak egindako proposamena ikusita erabakiko da zer den egokia.

VI. TITULUA. DESJABETZE BIDEZKO JARDUERA**14. Artikulua. Desjabetzeko irizpide orokorrak**

1. Erabilera publikoko eta gizarte interesekotzat joko da eta, beraz, posible izango da hirigintza arrazoiengatik nahitaezko desjabetzea ezartzea, ez balitz beteko gaurkotu beharra (erabilera nagusia bizitegiak duten eraikinetan) zerbitzuak eta instalazioak sektoreko legeri egokiak xedatutako irisgarritasuna errealitatea izateko. Jarduera horrek kontuan izango du 68/2000 Dekretutako, urbanizazio eta eraikinetan eraberritze-, handitze- edo aldatze-obra lanetan zaindu beharreko irisgarritasun-baldintzei buruzkoa den V. eranskineko 3. artikuluan araututako erabilgarritasun-irizpiden aplikazioan hartutako salbuespenezko konponbideen exekuzio posiblea; beraz, edozein kasutan ere jo ahal izango da desjabetzearen bidera, hala irisgarritasunaren irizpideak betearazteko, nola, ordezkio izaeraz bada ere, erabilgarritasun-irizpideak betearazteko.

2. Obrak eta jarduerak behin baimenduta, behar bezala egiaztatuko balitz ezin direla beharrezko zerbitzuak eta instalazioak gaurkotzeko obrak eta jarduerak egin, nagusiki bizitegi erabiltzen diren eraikinetan eta hirigintzako antolamenduak eskatutako terminoetan, sektoreko legeriak xedatutako irisgarritasuna egiazkoa izan dadin, urbanizazioak eta eraikinak eraberritzeko, zabaltzeko edota aldatzeko lanetako irisgarritasun-baldintzei buruzko 68/2000 Dekretuaren V. eranskineko 3. artikuluan araututako praktikotasun-irizpideak ezartzeko xedez hartutako salbuespenezko konponbideak egitea posible dela ulertuta), obra horiek osotasunean edo zati batean ukitzen dituzten ondasunen edo eskubideen titularrak aurka daudelako, Udaleko Alkatetzak, administrazio desjabetzailea den aldetik, erabaki egingo du, hala badagokio, desjabetzetik onura hartuko luketen pertsonak hala eskatuta, desjabetzeko espediente egokia hastea.

3. Horretarako, desjabetzeko proiektuak berriaz identifikatu beharko ditu pertsona onuradun horiek, erkidegoa edo obrak egiteko gehiengo nahikoa bere gain duena izan daiteke, jabetza horizontalari buruzko indarreko legeriarekin bat, azken kasu honetan barne sartuko lirateke desgaitasunak dituzten pertsonak, maiatzaren 30eko 15/95 Legeak ezarritako terminoetan, behin higiezina egokitzeko lanak egiteko eskubidea aitortzen dien epaia irmoa izanda.

4. Oro har, desjabetzeak hartu ahal izango ditu baimendutako sarbideetarako lanek eta jarduerak ukitzen dituzten lur eta eraikin guztiak, baldin eta 4. artikuluan adierazitako betebeharrak betetzen baditu.

15. Artikulua. Desjabetzeko eskaera

1. Desjabetzeko espedienteari hasiera emateko eskaera hortik onura aterako duen pertsonak edo pertsonak planteatzen dezakete, desjabetze horretarako arrazoiak eta helburua zehatz-zehatz justifikatzen dituen proiektu batekin batera. Halaber, 14.3. artikuluan adierazitakoarekin bat, onuraduna dela egiaztatzen duen dokumentazioa ere eman beharko du.

2. Onuradunak eskatu beharko du desjabetzea egiteko, honakoa egiaztatuta: batetik, udalaren baimena duen proiektu bat sustatzen duela, eta bestetik, aipatutako obrak ezin dituela hasi, obrak ukitutako ondasun eta eskubide guztiak baliatu ezin dituelako.

16. Artikulua. Desjabetzearen justifikazioa

Desjabetze-proiektuak justifikatu beharko du hala udal lizentziaren babespean dauden obra eta instalazioak, nola ondasun eta eskubide partikularrak hartzea eta ukitzea beharrezkoa dela aipatutako higiezinari irisgarritasuna emateko, edo irisgarritasun-egoera hobetzeko, urbanizazioak eta eraikinak eraberritzeko, zabaltzeko edota aldatzeko lanetako irisgarritasun-baldintzei buruzko 68/2000 Dekretuaren V. eranskineko 3. artikuluan araututako praktikotasun-irizpideak ezartzeko xedeaz.

17. Artikulua. Desjabetze-proiektuaren edukia

Desjabetze-proiektuak barnebilduko ditu, gutxienez, honako datu hauek:

Proposatutako desjabetzeak aldi baterako zein behin betiko ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda, bertan adierazita, hala badagokio, desjabetze horrek ondasun horietako jardueran izan ditzakeen ondorioak, baita ondasunen titularren zerrenda ere.

Obrak sustatzeko baldintzak, bai erkidegoak sustatuta, bai beste edozein pertsona fisikok eta juridikok sustatuta, sustapen hori eragin duten inguruabarrak ezagutzera eman dezakeen beharrezko informazioarekin batera.

Kasu horretan erkidegoak hartutako erabakiak eta erabaki horien aurkako oposizioa, ekimenaren aurka dauden pertsonen egindako izapideak zehaztuta.

Proposatutako desjabetzeak ukitutako ondasun eta eskubide guztien eta horietariko bakoitzaren eta sortutako kalte guztien balorazio ekonomiko zehatza.

Desjabetzetiko onuradun pertsonen konpromisoa, desjabetze horrek ukitutako ondasun eta eskubide guztien eta sortutako kalte guztien balio ekonomikoa ordaintzeko.

18. Artikulua. Desjabetze-espedientea izapidetzea

1. Bai desjabetze-eskaera, bai erantsitako proiektua, udal zerbitzuek aztertuko dituzte eta beroriek jakinaraziko dute, besteak beste, ordenantzan ezarritako betekizunak betetzen diren ala ez, eta arrazoizko proposamena egingo dute eskaera ezesteko, horretarako beharrezko baldintzak bete ezean edo horretarako justifikazioa izanez gero, edo izapidetzeko proposamena, indarreko desjabetze-arauekin bat.

2. Alkatetzak desjabetze-espedientea izapidetzea erabakiz gero, kasu bakoitzean zehaztuko du jarduera baterako tasazioko prozedurari ala banakako tasazioko prozedurari lotu behar zaion.

3. Onuradun pertsonen, ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda onetsi aurretik, Udaletxean gordailua edo bermea jarri beharko dute, hau da, balioaren ehuneko hogeitau (ehuneko 20), desjabetze-proiektuan aurreikusitakoaren arabera, behin kasura berregokituta.

AZKEN XEDAPENA

Bakarra.

Ordenantza honek indarrean sartuko da eta bere eragin eta ondorioak izango ditu, bere testu osoa ALHAOn argitaratzen denetik zenbatutako hamabost egun balioduneko epean.

Laudio, 2021eko uztailaren 9a

Alkate-udalburua

ANDER AÑIBARRO MAESTRE